

## 4. Arreta soziosanitarioa

---

Euskadiko arreta soziosanitarioa osasun- eta gizarte-zerbitzuak ematen dituzten erakundeen artean eratu den elkargune eta koordinaziorako gune komuna da, espazio horretan prestazioak jasotzen dituzten pertsonen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

Osasun Sailean Arreta Soziosanitarioko Zuzendaritza berria sortzea, zalantzarik gabe, funtsezkoa izango da jardun-arlo garrantzitsu honetarako.

Egitura indartzeko funtsezko elementu gisa, baliabide soziosanitarioen katalogo bat eta adostutako finantzaketa-eredu bat ezarriko dira, bai eta ebaluazio-prozedura bat ere.

Digitalizazioaren eta aurrez aurrekoak ez diren zaintza-neurrien barruan, telelaguntza-zerbitzua 80 urtetik gorako pertsona guztiei zabalduko zaie, eta bakarrik dauden pertsoneri arreta profesionala emateko lerro espezifiko bat jarriko da martxan.

---

Datozen urteetan, oso-osorik garatuko dira, Osasun eta Berdintasun Sailak, Justizia Sailak eta Gizarte politiketako Sailak eskatuta, foru-aldundiekiko eta udalekiko lankidetzan, gobernantza soziosanitarioaren ereduari buruzko aurreikuspenak, egitura eta dinamika instituzional, antolamenduzko eta asistentzial guztietan.

Aurrerapen horiek guztiak egituratzeko, gobernantza soziosanitarioari buruzko dekretu bat argitaratuko da, gizarte-politiken eta osasun-politiken arloen artean. Dekretu horretan ezarriko da xede diren kolektibo guztientzat lehen mailako arreta soziosanitarioaren garapena, haren ardatz gisa.

---

Datozen urteetarako, arreta soziosanitarioko eredu integral berri bat sustatuko da, laguntza sanitarioko eta sozialeko lehen mailako sareak koordinatuz, xede diren kolektibo soziosanitarioei zuzenduta eta, bereziki, adinekoei eta mendekotasunen bat dutenei, beren etxeetan edo egoitzetan bizi izanda ere.

Historia Elektronikoko Soziosanitarioa abian jarritz, zerikusia duten erakunde guztien arteko arreta integratua bultzatuko da, eta pertsona izango da jarduera ororen erdigunean.

Era berean, koordinazio handiagoa eratuko da Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarekin eta hirugarren sektorearekin, jarduketak eta baliabideak optimizatzeko eta kalitate handiagoko arreta eskaintzeko.

## Elementu instrumentalak

### **OSASUNAREN ARLOKO IKERKETAKO ETA BERRIKUNTZAKO EKOSISTEMA PROPIOA GARATZEN JARRAITZEA**

Gure industria-  
errealitatearekin  
lankidetzan, eta osasun-  
sistemak gizarte-  
kohesioari eta Barne  
Produktu Gordinari  
egindako ekarpen gisa.

### **OSASUN ARLOKO I+G+B SISTEMA KOORDINATUA ETA LANKIDETZAN OINARRITUA**

Eta gizonen eta  
emakumeen arteko  
ekitatean ere  
laguntzen duena.